

2017ko MARTXOAREN 27ko KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

Herriko Kontseilua, 2017ko martxoaren 27an, astelehenez, 19:00etan Herriko Etxean bildu da, Vincent BRU Jaunaren lehendakari dela.

Hor direnak: Vincent Bru jauna, Auzapeza, Bernadette Jougleux anderea, Christian Devèze jauna, Eliane Noblia anderea, Frédéric Bardin jauna, Pascale Lespade anderea, Didier Irastorza jauna, Eliane Aizpuru anderea, Henri Saint Jean jauna, axuantak, Anne-Marie Pontacq anderea, Vincent Goytino jauna, Christiane Hargain-Despéries anderea, Patrice Dor jauna, Yolande Huguenard anderea, Argitxu Hirigoyen anderea, Jean-Noël Magis jauna, Corinne Othatceguy anderea, Peio Etchelecu jauna, Maryannick Hirigoyen anderea, Roger Barbier jauna, Carmen Gonzalez anderea, Pascal Bourguet jauna, Véronique Larronde anderea, Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea, Pantxo Michelena jauna, herriko kontseilariak.

Barkatuak: Jean-Jacques Lassus jauna, Camille Jenvrin jauna, herriko kontseilariak.

Ahalordeak: Vincent Goytino jaunak Roger Barbier jaunari, Yolande Huguenard andereak Christiane Hargain-Despéries andereari, Jean-Jacques Lassus jaunak Henri Saint Jean jaunari.

Auzapez jaunak, aste osorako eri geldialdian den zerbitzuen zuzendari nagusia eskas dela jakiterat emanez hasi du Herriko Kontseilua. Denen izenean laster senda dadin desiratzen dio eta ondoko astetik goiti ikusiko duela espero du.

1 – Saioko idazkariaren izendatzea

Bertan diren kideek, Argitxu Hirigoien Anderea saioko idazkari **aho batez** izendatu dute.

2 – Aitzineko saioko bilkura agiriaren onartzea.

Auzapez jaunak, Kontseiluko kideei iragan 2017ko martxoren 6an burutu zen bilkurako agiriari buruzko oharrik baden galdegin die.

Ez da neholako oharrik izan, aitzineko saioko bilkura agiria aho batez onartu da.

3 – Tokiko zergak: tasen finkatzea.

Devèze jaunak, hautetsiei luzatu zaien familien tasaren emendatzeari dagokion proposamenean egin den kalkuluari buruzko azalpenak eman ditu. 2015az geroztik ez da herriko tasen emendatzerik izan, bizitegi zergarena (BZ) % 11n, eraikitako jabetza zergarena (EJZ) % 10,38an eta eraiki gabeko jabetza zergarena (EGJZ) % 26,33an mantendu direlarik. Errobi Herri Elkargoak jasotzen zuen CFEarri (zerga profesional ohia) dagokion guzia Euskal Hirigune Elkargoaren esku geldituko da.

Tasa horiek direla eta, Hirigune Elkargoaren fiskal eta finantza hitzarmenaren helburua zergapekoarendako neutralitate fiskala bermatzea da.

Hirigune Elkargoak, hiru zerga horiendako, 158 herrien herriarteko emaitza fiskalaren araberako batz besteko tasa orekatua (BTO) kalkulatu du eta herriei haien tasak batz besteko tasa orekatuaren arabera egokitzea proposatu die, bi herri zerga horien batuketak (egokitua eta BTO)

hitzarmenean helburutzat hartzen den neutralitate fiskala bermatu behar dutelarik.

Kanborendako, printzipio horren aplikatzeak hiru zergen apaltzea ekartzen du, % 10,86 BZrendako, % 24,05 EJZrendako eta % 24,05 EGJZrendako. Tasa horiek aplikatzen badira, Euskal Hirigune Elkargoak batz bestea atxikitzen dituenak kontuan harturik, zergapekoak neutralitate fiskal osoaz gozatuko du.

Tasa horien apaltzeak, Kanboko herriari dagokionez, 2017ko emaitza fiskalaren apaltzea dakar. Ondorioz, Herriak, konpentsazio sistema bat plantan eman du. Kanboko herriak fiskalitate iraunkorra nahi duen edo familiengan aldaketak ekarri nahi dituen jakitea gelditzen da.

Bigarren aterabidea proposatua izan da eta tasa hori bera aplikatuko genieke familia zergei, enpresei inposatzen zaien bera, hots, % 1,50eko CFEaren progresioa. 2017an hola geldituko litzateke:

- Bizitegi zerga: % 11,03
- Eraikitako jabetza zerga: % 10,44
- Eraiki gabeko jabetza zerga: % 24,44

Devèze jaunak gehitu du Hirigune Elkargoak 2017 urterako behin behineko oinarritzko aurreikuspenetan kalkulaturik egin dituela; alta, azken bi urte hauetan, oinarritzko aurreikuspen horiek behin betikoak baino handiagoak direla ohartarazi du. Horren ondorioa da aurrekontu mailan efektu bikoitza ekartzen duela: tasa efektua eta oinarritzko aurrekontu efektua; baina erabaki aldatzailea edo administrazio kontuaren bozka eginen delarik aipatu emaitzaren apaltze alderako berriak berarekin bururatuko da. Ondorioz, 2017ko errealak argitaratu artean, Kanborendako aurkeztuko den jatorrizko aurrekontuaren baitan kalkulaturiko zergen emaitzaren zenbatekoa 2016ko oinarri errealean kalkulatu da.

Yolande Huguenard gelan sartu da.

Hiru familia zerga horien aurreikusiriko emaitza 1.853.677 €-koa litzateke.

Devèze jaunak kalkuluaren printzipioa laburbildu du: Euskal Hirigune Elkargoak proposaturiko tasa egokituetan oinarritu da herria eta, honek, 2016ko abenduaren 31n aurkezturiko tasa horiei % 1,50eko emendatzea aplikatzen die. Tasa egokituiei diferentzia horiek gehitu zaizkie 2017ko tokiko tasaren emaitzara iristeko.

a

Michelena jaunak ohartarazi du, ooren buru herriak Hirigune Elkargoaren tasa hartu duela.

Devèze jaunak ezezkoarekin erantzun dio. Kanboko herria 2016ko abenduaren 31ko herriko tasetan oinarritu da eta hauei % 1,50eko emendatzea aplikatu die. Hala, behin betiko tasa horietara iristeko, Hirigune Elkargoak proposaturiko tasa egokituiei eskuraturiko baloreak gehitzen zaizkie.

Michelena jaunak Euskal Hirigune Elkargoko herri guzietan kalkulatzeko molde bera baliatuko duten galdegin du.

Devèze jaunak ez du beste herrien itzulia egin eta ez du hauek eginiko proposamenen berri. Gure elkargoak, Hirigune Elkargoak CFEarentzat baliatu duen kalkuluaren printzipioa atxiki du. Alta, Kanboren logika, inflazioaren tasaren bilakaera kontrolatuz, zergak berdintasunaren errespetuan emendatzea izan da beti. Bestalde, agintaldi oso bat herriko tasak emendatu gabe iragaitea ezinezkoa dela gehitu du.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

4 – Elkarreendako diru laguntzak

Auzapez jaunak adierazi du herriko kontseilari guziei 2017 urterako proposaturiko zerrenda igorri zaiela. Oroitarazi duenez, printzipioa herriko administrazioan dosierrik pausatu ez delarik diru laguntzarik ez esleitzean datza.

- Kanboko kirol elkarteak: 27.845 € jakinez igeriketa klubak ez duela oraindik laguntzarik galdegin. Iaz 620 €-koa zen diru laguntza hori berantago, beste saio batean, gehitu beharko da.
- Animazioa eta kultura, Kanboko elkarteak: 64.675 €
- Kanboko elkarte desberdinak: 7.960 €
- Kanboko eskolak: 7.185 €

Noblia andereak zehaztu du diru laguntzen osotasunaren apaltzea Kanbo Behereko eskolari urte finitze bidaiarako esleitzen zaion 1.000 €-ko diru laguntza bi urte guziez egiten delako gertatzen dela. Ondorioz aurten ez dute galderik egin.

- Kanbokoak ez diren elkarteak: 19.226 € (2016an Integrazio Batzordearendako 505 € eta St Vincent Paul sozietatearendako 450 € esleitu ziren, oraindik ez dute dosierrik pausatu).

Hiriart-Urruty andereak adierazi du Integrazio Batzordearen galdea jitekoa dela.

Auzapez jaunak herriak onartu duen printzipioa oroitarazi dio: dosierrik pausatu ez den artean ez da diru laguntzarik.

Hiriart-Urruty andereak normaltzat jo du.

Auzapez jaunak dosierra pausatuko dela notatu du.

Aurrekontuan funtzionamendu xahutze gisa agertzen den diru laguntzen osotasuna, Turismo Bulegoari esleitzen zaizkion laguntzak aparte, 126.891 €-koa da. Aparte da ere senidetzearen baitan Mendiz Mendi elkarteari esleitzen zaion diru laguntza.

Lespade andereak adierazi du, urte guziez Jeikadiren diru laguntza Sukila elkarteari esleitzen zaiola.

Auzapez jaunak ihardetsi dio elkarteak ez dukeela galderik egin.

Lespade andereak dio, honek ez duela galderik egiten. Bestetan egin ohi duela.

Auzapez jaunak begiratu beharko dela erantzun dio. Ondoren erregulartuko diren kasu horiez aparte, 2017ko herriko jatorrizko funtzionamendu aurrekontuan 126.891 €-ko zenbatekoa xahutze gisa sartuko da.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Barbier jaunak adierazi du Sukila eta Emaizta elkarteei dagokien bozketan ez duela parte hartu nahi.

Aho batez onartua, Sukila eta Emaizta elkarteei dagokien bozketan izan ezik, Barbier jaunak aurka bozkatu baitu.

5 – G.E.H.Z.arendako eta Eskolen Kutxarendako diru laguntzak

Saint Jean jaunak adierazi du, Herriko Kontseilua G.E.H.Z.ari 285.000 €-ko diru laguntza eta Eskolen Kutzari 7.854 €-koa esleitzera gonbidatua dela.

Saint Jean jaunak G.E.H.Z.arendako diru laguntzaren emendatzeari buruzko azalpenak eman ditu (64.000 € 2016an). Bigarren urtea da G.E.H.Z.ak haurtzaindegirik eta AGAZik gabe funtzionatuko duela baina, iragan urtean, G.E.H.Z.ak alde batetik 2015 urteko 125.000 €-ko soberakina eta bestetik FLKak (frantsesez CAF) emaniko 107.000 €-ko laguntza jaso zituen, zeinek 232.000 €-ko zenbatekoarekin bere laguntzak osatzen dituen. Horri Etxeko Laguntzaile Zerbitzuko (ELZ) langile titularren lan iraupena asteko 27 orenetik 30 orenera pasako dela gehitu behar zaio. Emendatze hori 20.000 €-tara iristen da, zeinari gehitu behar zaion: oren osagarriendako 5.000 €, otordu xekeendako 7.500 € eta, aurren, 30.000 €-koa izanen den ELZren defizita errepikakorra. Saint Jean jaunak gehitu du diru laguntza hori ondoko urteetan ere berdintsua izanen dela, 27 orenetik 30 orenera pasatze horren 25.000 €-ko balioztatze hori lau hilabeteri baitagokio eta, ondorioz, urte osorako balioztatzea 50.000 € gehiagokoa izanen da. Saint Jean jaunak zehaztu du G.E.H.Z.aren berrantolaketa berrikus daitekeela. Horretarako beste G.E.H.Z.en funtzionamendua ikusi ahal izateko bisitak finkatu dira: Uztaritzen, Hazparnen eta Hiriburun.

Auzapez jaunak zehaztu du, berriki egin den zuzendari berriaren izendapenagatik G.E.H.Z.aren zenbakiak berant heldu direla. Heldu den urtean, aurrekontu proposamenak aurren baino aise aitzinatuagoak izanen direla espero du. G.E.H.Z.aren diru laguntzaren zenbateko handiarengatik herriko inbestimenduak egokitu behar izan dira.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

6 – Essor Basquendako 2018 urteko diru laguntza abantzua

Irastorza jaunak oroitarazi du Essor Cycliste Basquen 42. edizioa 2015eko otsailaren 5eko tenpestak markaturik finitu berri dela. Aro gaizto horrek lehiaketako komisarioak, kirol zuzendariekin eta segurtasun zerbitzuekin bat eginez, Kanbon iragatekoa zen proba ezeztatzea erabakitzen behartu zituen eta, egutegiak hertsaturik, bizikleta lasterketako antolatzaileek ez zuten beste proba bat plantan eman ahal izan.

Gixune/Kanbo proba hori 2018an antolatuko dute beraz baina, ezeztatze horrek sortu duen diru ondorioei aitzin egiteko, Essor Basquek 1000 €-ko abantzua galdegin du, 2.000 €-koa izanen den heldu den urteko zenbateko osoan kontuan hartua izanen dena. Herriko Kontseilua, 2018 urterako Essor Cycliste Basquen aldeko 1.000 €-ko diru laguntza abantzua esleitzera gonbidatu da.

Bacardatz jaunak etapa horren ezeztatzearen ondorioak zein diren galdegin du, Essoren baitan ez baita sartzetik ordaintzen eta herriak eta babesleek diru laguntzak esleitu baitituzte.

Irastorza jaunak ihardetsi dio, Essor Basque ez dela Gixune/Kanbo etapara mugatzen, lau etapako osotasun bat dela. Antolaketa fresak badira eta aurrekontuan sartzeko babesleak atzematen gero eta zailtasun handiago dute. Jakitekoa da ere, lasterketa bakoitzean, eliteko bizikleta txapelketetan bezala, lasterkariak primak jasotzen dituztela etapa bakoitzeko.

Bacardatz jaunak gehitu du, proba ez denez iragan, ez duketela prima hori jaso. Dena den, proba iraganik ere, Essor Basque diru mailan egoera txarrean zela pentsatzen du.

Irastorza jaunak errepikatu du, babesle batzuk erretiratu direla eta aurten parte hartzaile gutiago izan dela, hortik aurrekontu tinkia.

Bacardatz jaunak dio heldu den urtean arazo bera izanen dela hain segur.

Irastorza jaunak ezezkoarekin erantzun dio, herriak galdeginiko 2.000 €-etarik 1.000 baizik ez baititu emanen.

Auzapez jaunak adierazi du denek uler dezaketela Esoe Basquek diru sartzeetan oinarrituriko fresa finkoak dituela. Kanboko lasterketa ezeztatua izan denez, 2.000 € gutiago sartuko dute, segurtasun, publizitate eta abarrendako fresak engaiatuak zituztelarik. Arrazoi horrengatik, Esoe Basquek 2018 urteko diru laguntzan oinarrituriko 1.000 €-ko abantzua esleiziaziokeen galdegin dio herriari.

Bacardatz jaunak ulertzen du baina etapa ezeztatzeagatik galdu duketen diruaren sotiltasunaz ari da.

Irastorza jaunak erantzun dio hastapenean lau etapa direla erran duela, beraz arazoak Esoe Basque osoan dira eta ez Kanbo/Gixune etapan soilik.

Bacardatz jaunak dio etapa ezeztatua ez balitz izan ere ondoko urterako diru laguntza abantzua galde zezaketela.

Irastorza jaunak zehaztu du, etapa ezeztatu denez, herriak ez duela 2016 urterako aurreikusiriko 2.000€-ko diru laguntza esleitu.

Presente diren Kontseiluko kide guziak informazioen jabe izanik, Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

7 – 2017ko jatorrizko aurrekontuaren bozka

Auzapez jaunak, finantza axuanta den Devèze jaunari eman dio hitza, 2017ko jatorrizko aurrekontua aurkez dezan.

Devèze jaunak adierazi du jatorrizko aurrekonturako proposamen horren elementuak jadanik 2017ko otsailaren 27ko finantza batzordean aztertua izan direla.

Aztertu diren zenbakien arabera, herriko jatorrizko aurrekontuaren funtzionamendu atalean aldaketa garrantzitsuak izan dira eta hori G.E.H.Z.arendako proposatu den diru laguntzaren emendatzearengatik izan da.

Lehenik, finantza batzordea bildu zelarik, herriak funtzionamendu ataletik inbestimendu atalera 310.000 €-ko biramendua egitea espero zuen baina, G.E.H.Z.ari emaniko kopuruan emendatze handia izan denez, biramendu hori uste baino apalagoa izan da (70.000 €).

Funtzionamendu kargen osotasunaren baitako heineratzea baizik sortzen ez duenez, hain esanguratsua ez den bigarren aldaketa: aurkezturiko diru laguntzen zenbatekoa 126.891 €-tan finkatu da, hots, finantza batzordeko bilkura egin zelarik hastapenean aztertutako dokumentuaren

arabera 1.700 €-ko desberdintasunekoa, 6574 artikuluan Alliance 64ri 100 € ordez 1.800 €-ko diru laguntza esleitzen baitzitzaion. Hori dela eta, aurreikusi gabeko xahutzeen atala 1.700 €-z emendatu da eta ondorioz 82.325 €-ko izatetik 84.025 €-koa izatera pasa da.

➤ **Aurrekontu nagusia**

Funtzionamendu atala 6.101.261 €-ko zenbatekoarekin orekatzen da eta inbestimenduarena 5.211.606 €-koarekin.

Devèze jaunak funtzionamendu ataleko diru sartzeak aurkeztu ditu eta puntu esanguratsuenak komentatu. Bacardatz jaunak Finantza batzordean pausatu dion galderari erantzun dio, hau da, kapital propioekin lan egiten delarik, BEZaren berreskuratzearen oinarri dena, lansariak baliaturiko materialaren prezioaren emendatzea sortzen ote dute? Erantzuna ezezkoa da. Lansariak ez daude materialarendako soilik egina den BEZaren menpe.

Devèze jaunak funtzionamendu atalaren xahutzeak aurkeztu ditu eta puntu esanguratsuenak komentatu.

Michelena jaunak galdera orokor bat pausatu du: 2017ko aurrekontuan aurreikusiak ez diren kultura ekimenendako finantzaketarik aurreikusi ote da, aurten Arnaga 2016ekin, Duron egunekin edo besterekin gertatu bezala?

Devèze jaunaren arabera 2017 urtean ez da gisa horretako operaziorik izanen. Michelena jaunak aipatu dituen horiek 2016ko aurrekontua osatu aitzin eramanak eta aurreikusiak izan ziren. Izan ere, handitasun hori duten ekintzen berri aurrekontuak aurkeztu aitzin ukaiten da, iaz partikularki Donostia 2016 erakusketarekin gertatu bezala.

Beste galderarik ez denez, Devèze jaunak inbestimendu ataleko xahutzeak aurkeztu ditu eta puntu esanguratsuenak komentatu.

2047ko inbertsioen zenbateko osoa 2.751.846 €-koa da. Kanbo Behereko eskolarendako inbertsio programaren apaltzea agertzen du, G.E.H.Z.ari esleitu zaizkion 24.000 €-ekin lotura duena. Elkargoak operazio hori 2017rako gibelatu behar izan du, aurrekontuaren baitan 30.000 €-tan mantentzen bada ere. Bideendako programa ere 24.000 €-z apaldu da.

Hiriart-Urruty andereak Kanbo Behereko eskola berritze proiektua bazterrera utzi den galdegin du.

Devèze jaunak proiektua ez dela abandonatu erantzun dio, aurrekontuan sartzea 30.000 €-ra mugatu da baina, G.E.H.Z.ari esleitu behar zitzaion zuzkidura osagarriarengatik erabaki bat hartu behar zen heinean, operazio bat gibelatu behar zen eta Kanbo Beherakoarena gibelatu da. Xahutze batzuk eginen dira baina operazio hori ezin da bitan zatitu. Birkokatu beharko balitz, 270.000 € atzeman beharko lirateke.

Auzapez jaunak gehitu du, aurreikusiriko 30.000 €-ak lurraren ikerketarendako direla, arkitekto fresak eta abar. Kanbo Behereko proiektua urte batez gibelatu da, eguberriko oportetean ezin delako lan handiegirik abian eman. Horretarako udako bi hilabeteko oporraldia baliatu behar da. Horregatik, 2017ko uztaileko aurreikusi ziren lanak 2018ko uztaileko gibelatu dira.

Michelena jauna ohartarazi du, Kanbo Behereko eskola ez dela herriaren lehentasunetan.

Auzapez jaunak oroitarazi du, aurrekontuan sartuak ziren lan horiek egitea elkargoaren ideia

izan zela. Behar ziren diru laguntzak galdegin ziren baina, sinpleki, G.E.H.Z.ak galdegiten zuen zenbatekoa berant jankinatik, erabaki bat hartu behar izan da eta, Kanbo ez sobera zorpetzeko gisan, operazioa urte batez gibelatu da. Proiektua ez da bazterrerat utzia.

Bacardatz jaunak adierazi du, margolanen arraberritzea azarorako utz zitekeela 2018ko aurrekontuan sartu ahal izateko. Margolan horiek udan edo uda ondoren arraberritzeak edo elizako obrak gibelatzeak ez du berebiziko garrantzirik. Horrek Kanbo Behereko eskolako lanak bestak aitzin egitea ahalbidetuko luke.

Auzapez jauna ados da horrekin, salbu VEBER margolanendako prozesu bat badela adierazi du. Ez ditu herriak arraberritzen, Versailleseko arraberritze ateleria batzuek baizik. Lanak eginak izan daitezten, oniritzia emana den mementotik aitzina jo behar da. Herriak KGLZaren (Kultura Gaietarako Lurraldeko Zuzendaritza, frantsesez DRAC) diru laguntza eskuratu du eta egingarritasun baterako engaiatu da, ezin da beraz arraberritzea gibelatu. Beste edozein eraikinendako, herriak, urte finitzean abiaraztea nahiagoko luke eta, gisa horretan, 2018ko aurrekontuan sartu. Kanbo Behereko lan horiek 2018ko aurrekontuan lehentasunezko tokian sartuko dira baina eskola erritmoa kontuan hartu behar denez, lanak ezingo dira 2017 urte finitzean abiarazi.

Devèze jaunak gehitu du, VEBER margolanek 101.600 €-ko diru laguntza eskuratzeko parada ematen dutela. Arraberritzea ez balitz egiten diru laguntza galdua litzateke eta arraberritzearen kostuak ez luke, hipotesia guzien arabera, G.E.H.Z.aren gainkarga estaliko.

Auzapez jaunak zehaztu du herriak Fondation Patrimoinengana joko duela eta, agian, diru laguntza gehigarri ttipi bat eskuratuko duela.

Bacardatz jaunak elizako lanen gibelatzea ere aditzera eman duela oroitarazi du. Ez da presa handirik, lan horiek urte finitzean has daitezke 2018ko aurrekontuan sartu ahal izateko. Neguan udan baino jende gutiago da elizan.

Devèze jaunak dio ez litzatekeela elizatiar guziak galtzen finitu behar...

Michelena jaunak gehitu du, elizak eskolak baino garrantzia gehiago duela.

Auzapez jaunak zehaztu du adierazpen askatasuna osoa dela baina denek ulertuko dutela hori umorea edo karikatura bat dela.

Hiriart-Urruty andereak inbestimendu xahutzeetako immobilizazio gorpuzdunen inguruko xehetasunak ukan nahi litzuzke eta, zehazkiago, lursailen landatze eta antolaketaren ingurukoak (493.021 €).

Devèze jaunak erantzun dio zenbateko hori ez dagokiola lerro bakarrari, baizik eta programa guzietako maila desberdinetan partekatua dela. Garrantzizkoa, 2017ko oinarrizko aurrekontua bere osotasunean begiratzea da, hau da, 3.685.246 €-ek inbestimendu programarekin bat egiten dutela egiaztatzea.

Devèze jaunak inbestimendu ataleko diru sartzeak aurkeztu ditu eta puntu esanguratsuenak komentatu.

➤ **Saneamendu kolektiboaren aurrekontu gehigarria**

Devèze jaunak saneamendu kolektiboaren 2017ko oinarrizko aurrekontu gehigarria aurkeztu eta komentatu du, funtzionamendu atalean 545.611 €-tan orekatzen dena eta inbestimendu atalean

1.765.702 €-tan.

Devèze jaunak, auzapezaren kontrolpean, argibide bat eman du: dirudienez, 2018 urtean gauzatzekoa zen saneamendu kolektibo mailako eskumenaren eskualdatzea urte batez gibelatua litzateke. Haatik ur edangarri mailako eskumena 2017ko urtarrilaren 1az geroztik eskualda liteke eta, zernahi gerta ere, bi eskumenak 2020 urterako transferituak izan beharko dira.

Devèze jaunak zehaztu du, “bidean diren immobilizazioak” 23. artikulua 1.400.000 €-ko zenbatekoa agertzen duela. Oraingoz ez da xahutzerik aurreikusi. Diru hori eskumena Euskal Hirigune Elkargoaren esku gelditu aitzin baliatzekoa da. Auzoetan edo karrketan saneamendu mailako beharrik izanez gero, jakinarazi behar dira eta saneamendu batzordeak aztertuko ditu. Gaur egun, ez da zenbateko hori irents dezakeen behar aipagarririk ezagutzen.

Bacardatz jaunak, herriko aurrekontu orokorrean, funtzionamendua eta inbestimendua soberakinekin orekatuak direla ohartarazi du. Saneamenduaren kasuan, zergatik ez, kanboarrekiko keinu azkarra egiteko, funtzionamendu zerbitzu zergak apaldu eta, saneamendu zerbitzu zergaren kasuan, ur fakturarena. Funtzionamendu diru sartzeak apalduko lirateke baina kanboarrei herriak haiendako indarrak egiten dituela erakutsiko litzateke. Kanbon 3.000 biztanle baldin bada, etxe bakoitzeko apaltzea 50 €-koa izanik ere, funtzionamendu diru sartzeen apaltzea 150.000 €-koa litzateke. Inbertsioaren galdera ez litzateke pausatuko eta, herriko saneamendu guziaz garbia denez, hobe soberakin mota horren gozatzea kanboarrena izatea.

Devèze jaunak erantzun dio ideia noblea dela eta ulertzen duela baina arazoa dela herriak hori egiteko eskubiderik ez duela. Azken batean finkoak eta aldakorrak diren zerbitzu zergen ez emendatzea egin daiteke baina Kanbok zerbitzu zerga hori apaltzen badu, eskumen hori Hirigune Elkargoaren esku geldituko delarik, honek automatikoki anitzez emendatu beharko du.

Bacardatz jaunak gehitu du kanboarrek apaltze horretaz bi urtez profitatzen ahalko luketela.

Devèze jaunak ihardetsi du gimnastika hori ez dela egokia.

Bacardatz jaunak erran du egitekoak diren beste obra batzuk atzeman beharko direla.

Devèze jaunak posizio hori baieztatu du.

➤ **Hilobi kolunbarioen aurrekontu gehigarria**

Devèze jaunak hilobi kolunbarioen 2017ko oinarrizko aurrekontu gehigarria aurkeztu eta komentatu du. Honek atal bakarra du, funtzionamenduarena, eta 95.927 €-tan orekatzen da.

Beste galderarik ez denez, Auzapez jaunak Devèze jauna aurkezpenagatik eskertu du, baita aurrekontuaren osaketan lagundu duten zerbitzuetako zuzendaria eta herriko langileak ere.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du:

- Funtzionamendu atalean 6.101.261 €-tan orekatzen den 2017ko oinarrizko aurrekontu nagusia.

Gehiengoak onartua.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty andereak, Philippe Bacardatz jaunak, Nathalie Aïçaguerre andereak, Pantxo Michelena jaunak.

- Inbestimendu atalean 5.211.606 €-tan orekatzen den 2017ko oinarrizko aurrekontu nagusia.

Gehiengoak onartua.

Aurka bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty andereak, Philippe Bacardatz jaunak, Nathalie Aïçaguerre andereak, Pantxo Michelena jaunak.

- Funtzionamendu atalean 545.611 €-tan eta inbestimendu atalean 1.765.702 €-tan orekatzen den 2017ko saneamendu aurrekontu gehigarria.

Gehiengoak onartua.

Aurka bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty andereak, Philippe Bacardatz jaunak, Nathalie Aïçaguerre andereak, Pantxo Michelena jaunak.

- Atal bakarra duen eta Inbestimendu atalean 95.927 €-tan orekatzen den hilobi kolunbarioen 2017ko oinarrizko aurrekontu gehigarria.

Ahi batez onartua.

Goytino Vincent jauna gelatik atera da.

8 – 2018-2019ko tarifikazioak

Auzapez jaunak herriko kontseilari guziei ondoko tarifikazioa helarazi zaiela oroitarazi du:

- Aterpetzerik Gabeko Aisialdi Harrera (AGAH),
- Arnaga 2018 eta 2019 urteendako,
- Egonaldi zerga 2018 eta 2019 urteendako,
- Bi tokiko hilobien salmenta prezioa.

Hiriart-Urruty andereak, Kanborendako eta Itsasurendako AGAHaren tarifak zergatik berak diren galdegin du.

Auzapez jaunak Itsasuk, Kanboren hein berean AGAHaren fresetan parte hartzen duela erantzun dio.

Hiriart-Urruty andereak, tarifak aitzineko urteko berak diren galdegin du.

Noblia andereak % 1ez emendatu direla ihardetsi du.

Bacardatz jaunak egonaldi zergari buruzko galdera bat pausatu du, partikularki, karabanendako eremuarendako 0,80 €-tik 0,75 €-rako apaltzea zergatik izan den jakin nahi du.

Irastorza jaunak lege kontu bat dela erantzun dio. Orain, tarifak inposatzen dira eta herriarenak hori gainditzen zuen.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Lau tarifak aho batez onartuak.

9 – Skate parkea: enpresen izendatzea

Irastorza jaunak adierazi du, herritarren galde bati erantzuteko asmoz eta nerabeek haien adinera egokituriko joko eremuak ukan ditzaten, 2016az geroztik eramaten duen gazteei zuzenduriko politika dinamikarekin segitu nahi duela herriak.

“Agorespace” gisako kirol anitzeko eremu bat egin ondoren, herriak, Michel Labèguerie herriko zelaiaaren eremuaren baitako eskola egituretatik hurbil kokatua den gune batean 680 m²-ko hedadurako (zortasun eremua) betoizko skate parke bat egin nahi luke aurten. Obratze horrek, haien segurtasuna eta beste erabiltzaileena arriskuan emanaz gazteek baliatzen dituzten bideetan, eskaileretan edo zelaiguneetan ibiltzea ekidinen luke eta gogoan hartu behar da ere gaur egun, egitura horiek, fama handia dutela gazteen artean.

2016ko maiatzaren 2ko delibero bidez, Herriko Kontseiluak HALL 04 et Cie Sozietatea izendatu zuen finkatze proiektu bat apailatzeko obralari gisa. Muntadura horrendako aurreikusiriko kostua zergarik gabeko 180.000 €-koa da.

Prozedura egokitu bidezko kontsultazio bat abian eman zen iragan otsailaren 3an, lanen merkatu eremuaren baitan enpresa bat izendatzeko asmoz. Eskaintzak helarazteko 2017ko martxoaren 2ko 12:00etarako finkatu zen epea finitzean, herriak bi gutun azal jaso ditu. Hauek, 2017ko martxoaren 13an 16:00etan bildu zen Prozedura Egokituetakoko Merkatuen (PEM) batzorde bilkuran ireki ziren eta, Jean-Baptiste PICOTek aurkezturiko eskaintzen analisia txostenaren berri ukan ondoren, HALL04 et Cie.ko obralariak ekonomikoki abantailatsuen den proposamena luzatu duen enpresari merkatua esleitzea proposatu zuen, hau da:

Concrete Waves Skate Park sozietatea zergarik gabeko 165.000 €-ko kostuarendako.

Herriko Kontseiluari galdegina zaio atxikia izan den enpresarekin merkatu izenpetzeko baimena Auzapez jaunari eman diezaion.

Irastorza jaunak zehaztu du proposaturiko sozietatea erreferentzia bat dela sektore horretan, bai Frantzian eta bai atzerrian ere.

Auzapez jaunak gehitu du proiektu hori bere hauteskunde programako herriko gazteen aldeko proposamenetariko bat zela eta herriak bi urtetan “agorespace” deritzona eta skate parkea egin ahal izan duela. Kanpainan zehar haur ttipiekiko indarrak egin zirela ohartu zen baina behar bada ez aski nerabeekiko eta berezikiago nerabe handiekiko. Gisa horretan, herriak, gazte horiei zuzenduriko muntaduretan indar berezia egin nahi izan du.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

10 – Skate parkea: diru laguntza galdea

Irastorza jaunak oroitarazi du proiektu horren finantzaketa plana 197.500 €-koa dela:

Galdeginiako diru laguntza: 55.721 €, hots, % 28,20

Departamenduko Kontseiluaren laguntza: 22.083 €, hots, % 11,20

Errobi Herri Elkargoaren laguntza (laguntza funtsa): 80.236 €, hots, % 40,60

Auto finantzaketa: 39.510 €, hots, %20

Herriko Kontseilua gonbidatua da:

- Inbestimendu proiektua onartzera (lanak eta ordainsariak),
- Finantzaketa plan hau onartzera,

- Baserialdeko Lurraldeetako Muntadura Dohatzea (BLMD), Tokiko Inbestimendu Publikorako Sostengu Funtza (TIPSF) eta Gizarte Kohesiorako Departamenduko Zuzendaritza gisa Estatuari laguntza galdegitera.
- Auzapez jaunari zentzu horretan doan desmartxa oro abian emateko eta baita honi dagokion dokumentu oro izenpetzeko baimena ematera.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

11 – Joko eremuak: enpresen izendatzea

Jougleux andereak, herriak, elkarbizitza faboratuz, herritarrendako eremu publikoen erakargarrtasuna hobetu eta herri erdigunea dinamizatu nahi duela adierazi du. Hala, 2017rako bi joko eremuren egokitzea aurreikusten du, “Publiko Gazteari” egiten dion eskaintza anizteko asmoz maila guzietan legea betetzen duten joko eremu arraberrituak proposatuz. Joko eremu kolektibo horiek haurrendako urostenarako gune izanen dira. Irekiak izanen dira eta muntadurak adin tarte desberdinetako haurrendako egokituak.

Inbestimendu programa hori ondoko moldean gauzatuko da:

- Saint-Joseph parkea: jadanik plantan den eremuaren hedatzea, egungo hedadura bikoiztuz eta aktibitate modulu berriz eta laguntzaileendako espazio goxoago batez hornituz.
- “Chantecler” ama eskola publikoa: eskolako eta, eskola opor garaian, aisialdi zentroko haurrendako eginiko eremu baten eraikitzea.

2017ko otsailaren 6an, herriak, bi joko eremuren hornitze eta pausatzerako prozedura egokitu berri bat abian eman zuen, bi lotetan banaturik, ondoren agertzen den gisan:

- 1. LOTEA: Sait-Joseph parkeko joko eremuaren hedatzea, aurreikusiriko 110.000 €-tan, zerga oro barne
- 2. LOTEA: “Chantecler” ama eskola publikoko joko eremuaren eraikitzea, aurreikusiriko 32.000 €-tan, zerga oro barne

Lote bakoitzaren egitekoaren baitakoak dira:

- Gauzatze planen egitea
- Jokoen, materialen, muntaduren hornitzea
- Lanen egitea
- Lanen segimendua

2017ko martxoaren 2ko 12:00etarako finkatu zen eskaintzak aurkezteko epemugan sei gutun eta e-mail bat jaso ziren. Hauek, 2017ko martxoaren 13an 16:00etan bildu zen PEM batzordearen bilkuran ireki ziren eta, Maitena Berrouet Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak aurkezturiko eskaintzen analisia txostenaren berri ukan ondoren, batzordeak merkatua ekonomikoki eskaintza abantailatsuen aurkeztu zuen enpresen esku uztea proposatu zuen.

Herriko Kontseiluari galdegina zaio Auzapez jaunari atxikiak izan diren enpresekin merkatuak izenpetzeko baimena ematea.

Jougleux andereak gehitu du hautetsi batzuk, enpresa desberdinek proposatzen dituzten

produktuak tokian berean ikusteko, Biarritzeko, Uztaritzeko, Donibane Lohitzuneko eta Senpereko joko eremuak bisitatzera joan zirela. Eskaintza apalena egin duen enpresa hautatu zen baina hautetsiek jokoaren kalitatea egiaztatu nahi zuten. Egiazki, hautaturiko enpresak haurrendako egokiagoak diren jokoak eskaintzen ditu eta saio honetan proposatu den enpresa honen muntaduren kalitatea denboraren iragatearekin hobe mantentzen da. Jokoen hautuari dagokionez, ama eskolako Zuzendariarekin harremanetan sartu gara eta, Saint Joseph parkeko joko eremuarendako, herria haurtzainekin elkartu da. Jokoak elkarrekin hautatu ditugu.

Bacardatz jaunak adierazi du enpresak ez direla izendatu.

Jougleux andereak dio bi loteendako KASO enpresa atxikia izan dela, ama eskolako joko eremua eraikitzeke zergarik gabeko 28.660 €-tan eta Saint Joseph parkeko joko eremuaren hedatzerako 84.096 €-tan.

Bacardatz jaunak gehitu du ez dela eskaintza apalena egin duen enpresa atxikia izan. Ez da beraz atxikia izan den eskaintza ekonomikoki abantailatsuen delarik erran behar, eskaintza onena egin duena baizik. Bi loteendako KASO enpresa atxikia izan den galdegin du.

Jougleux andereak baiezkorekin erantzun dio.

Bacardatz jaunak enpresarekin herriko etxean bilkurarik egin den galdegin du.

Jougleux andereak bilkura hori jokoak ikusterat joan aitzin egin zela baieztatu dio.

Auzapez jaunak herriak, Saint Joseph parkeko joko eremua handituz, ttipienendako ere lan egiten duela zehaztu du. Elkartzen ahalko diren burasoek eta baita haurtzainek ere parke hori prest izatea berantesten dute. Herria joko eremu biziki ederraren jabe izanen dela uste du.

Hiriart-Urruty andereak dio, elkarbizitza faboratzeko asmoarekin auzoetarako ere joko eremuak aurreikustea ontsa litzatekeela.

Auzapez jaunak ihardetsi dio herriaren politika ez dela arras hori. Eremu horiek biziki garestiak dira, bereziki estaldura sintetikoa dutenak, eta bere taldeak nahiago duela burasoak leku horretan elkar daitezen. Haatik, Kanbo Beherean ere bada joko eremu bat, eskola publikoaren azpian denez ez dena ontsa kokatua. Joko eremu hori hor da eta herria Kanbo Behereko lorategi publikoan lanak egitea hausnartzen ari bada ere gauzak ez dira pikoan emanak. Herriaren hautua Kanbo joko eremu handi batez hornitzea izan da, Kanbo gaineko auzoetako buraso eta haurrei elkartzeko parada emanen diena.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua

12 – Joko eremuak: laguntza galdea

Jougleux jaunak adierazi du, skate parkearendako bezala, finantzaketa plan bat badela.

1. lotearendako orotarako zenbateko 110.000 €-tan finkatua da, zerga oro barne, eta 2. lotearendako 32.000 €-tan, zerga oro barne.

Herriko Kontseiluak, merkatuaren hartzaila izendatu ondoren, operazio horri esleituko zaion zenbateko osoa zergarik gabeko 119.000 € ingurutan finkatua izan da.

Herriko Kontseiluari galdegina zaio:

- Zergarik gabeko 119.000 €-ko kostuarendako inbestimendu proiektua onartzea.
- Diru laguntza txostenean aurkeztua den bezala, finantzaketa plana onartzea, hau da:
Galdeginiako diru laguntzaren zenbatekoa: 50.200 €, hots, % 42,18
Errobi Herri Elkargoaren laguntzaren zenbatekoa: 45.000 €, hots, % 37,87
Autofinantzaketa: 23.800 €, hots, %20
- Baserrialdeko Lurraldeetako Muntadura Dohatze (BLMD) eta Tokiko Inbestimendu Publikorako Sostengu Funtza (TIPSF) gisa Estatuari laguntza galdegitea
- Auzapez jaunari zentzu horretan doan desmartxa oro abian ezartzeko baimena ematea eta baita honi dagokion dokumentu oro izenpetzeko ere.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua

13 – Arnagako parkeko zuhaitzak egoera segurean ezartzeko lanak: laguntza galdea

Pontacq andereak oroitarazi du, Arnagako parkeko zuhaitzak egoera segurean ezartzearekin segitzen duela herriak eta 2016ko abenduaren 26ko delibero bidez, Herriko Kontseiluak operazio onendako obralari den Forêt Conseil sozietateak proposaturiko Arnagako ondare arbolatsuen 2017ko aditasun eta egoera segurean ezartze programa ontzat eman duela.

2017 programa ondoko moldean osatua da:

- Merkatuko prezio finkoaren araberako lanen estimatzea: zergarik gabeko 16.7770,00 €
- Aritu segimendua: zergarik gabeko 2.700,00 €
- Obralaritza (lanen segimendua) ordainsariak: zergarik gabeko 1.404,70 €

Hots, orotara, zergarik gabeko 20.874,70 € (25.049,64 € zerga oro barne).

Lanen gauzatze data 2017ko apirilean izatea aurreikusia da. Herriak Estatuaren laguntza galdegin du (KGLZ Akitania Berria).

KGLZk proposaturiko finantzaketa proiektua ondoko moldean hartzea komeni da:
Operazioaren zenbatekoa: zergarik gabeko 20.874,70 €
Estatuaren parte (% 40), hau da, 8.349,88 €-ko diru laguntza
Herriaren parte hartzearen zenbatekoa, BEZ barne: 16.699,76 € zerga oro barne
Herriko Kontseilua, gainean agertzen den Estatuaren finantzaketa plana (KGLZ) onartzera eta Estatuaren eta Departamenduaren laguntza galdegitera gonbidatua da.

Auzapez jaunak, txosten honi dagokin aurkezpenari buruzko oharrik baden galdegin du.

Aiçaguerre andereak, moztuko diren zuhaitzen ordez beste batzuk landatzea aurreikusten den galdegin du.

Auzapez jaunak dio, hori guziaren jarraipena KGLZk eta honek proposaturiko kabinetek egiten dutela. Argi da asmoa ez dela Arnagako eremua desitxuratzea edo suntsitzea, alderantziz

baizik. Segurtasun kontu bat da lehenbizi, Arnagako bisitariak eta erabiltzaileak mehatxatzen zituzten Rostanden garaian landaturiko zuhaitzak baitzeuden. Eremuko zuhaitz guzien osagarriaren azterketa egin da eta zuhaitz bat berriz landatuko behar delarik, herriak, adituen proposamenak kontuan hartuz, gogo onez egingen du.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua

14 – Autobus geltokia: 1. gehigarria

Magis jaunak, autobus geltokiko lanendako minusbalioan den gehigarria proposatu du.

Larronde eremuarengandik bereizteko hesia ez egitea erabaki da. Horrek hastapen batean burdin hesia pausatzeko aurreikusi oinarrizko murrua eta burdin hesia bera kentzea suposatzen du, hau da, 15.060 €-ko minusbalioa. Toki horretan berean, espaloia mantentzen da eta T2 motako hertza plantan emana izanen da.

Zolako markatzean ere aldaketa bat izan da: erretxinazkoa izan behar zen zolako markatzea tinduz egina izan da, 1.111,48 €-ko minusbalioa suposatu duena. Hiru minusbalio horien zenbatekoa 16.171,48 €-koa da, orotara.

Haatik, gainbalio ttipia bada autobus aterpeari dagokionez, autobusaren beha diren ikasleek babes hobea izan dezaten bazterreko berina ezarri delako eta honen kostua zergarik gabeko 2.100 €-koa da.

Aldaketen batuketak zergarik gabeko 14.071,48 €-ko minusbalioa sortzen du.

Herriko Kontseilua, 1. gehigarria minusbalioan onartzera gonbidatua da.

Bacardatz jaunak zolako markatzearendako erretxinak tinduarekiko duen interes teknikoa zein den galdegin du.

Magis jaunak ihardetsi dio obralariak proposatu zuen hautu bat zela eta itxurari zegokiola.

Bacardatz jaunak tinduzko markatzeak erretxinazkoak duen iraupen bera duen jakin nahi du.

Magis jaunak ezin dio erantzun baina, dena dela, tinduak luzaz irauten duela erran du.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

15 – Sorhainde plaza: 1. gehigarria

Magis jaunak 1. lotean, bide berdintzean, Sorhainde plazako lanendako gainbalioan den gehigarria proposatu du.

Lanen ondorioz, eremua irekirik ikusi duten herritar batzuek herriarengana jo dute orain den gisan manten dadin galdegiteko. Gisa horretan aparkalekuaren eta Assantza etxearen arteko irispide zuzena ukanen dute eta erakustokira Edmond Rostand etorbideko espaloitik pasa gabe joaten ahalko dira. Merkataritza eremutik Boudon dendako espaloiraino oinezkoendako zuzeneko lotura ere eskaini nahiko lukete.

Aparkalekuko zirkulazio eremutik pasa gabe espaloitik dendetara buruz doan oinezkoendako ibilbide hori faboratzeko, Edmond Rostand etorbideko autobus aterpetik abiatzen den eta dendekin

lotura egiten duen ibilbide hori betoi desaktibatuz egitea erabaki da, 5.032,85 €-ko gainbalioa sortzen duena.

Assantza etxearengandik bereizteko hesiari dagokionez, ondokoa erabaki da:

- Hesia luzatzea eta 1,50 m-ko goratasuneko hesia plantan ezartzea, hastapenean pentsatu zen 2 m-koa ezarri ordez.
- Aparkalekuaren eta etxearen artean oinezkoendako pasaia sortzea, 1,20 m-ko zabalerako erresorte atexka bat emanez.

Horrek zergarik gabeko 1.414 €-ko gainbalioa uzten du.

Sare-areka artekadun areka batekin ordezkatzek zergarik gabeko 6.275 €-ko gainbalioa sortzen du.

Gainbalioen orotariko zenbatekoa zergarik gabeko 12.721,85 €-koa da.

Gainbalio horiei egin gabeko lanak kendu behar zaizkie:

- Hornitu gabeko obra seinaletika: zergarik gabeko -800 €
- Errota pentoken kentzea: -500 €
- Hastapen batean harri itxurazkoak izan behar ziren hertzak ohiko betoizko mota berdinekoek ordezkatzek: zergarik gabeko -6.585 €.
- Minusbalioaren orotariko zenbatekoa zergarik gabeko 7.885 €-koa da.
- Gainbalioen eta minusbalioen batuketak zergarik gabeko 4.836,85 €-ko gainbalioa agertzen du.

Herriko Kontseilua Auzapez jaunari 1. gehigarria izenpetzeko baimena ematera gonbidatu da.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

16 – Lur erostea

Auzapez jaunak oroitarazi du St Michel Garikoitz karrikan kokatua den lursail bat erostea aipu dela; lursail horrek, orotara, 6.152 m²-ko hedadura du eta, herriak eta ondoan den arta etxe batek erosteko interesa aspalditik agertu dute. Jabeak bi lote egitea onartu du. Arta etxeak erosiko lukeen 1.579 m²-ko hedaturako lehen lote bat eta Kanboko herriak erosiko lukeen 4.573 m²-ko hedaturako bigarren lote bat.

Herriak 2016ko apirilaren 4koa zen Jabegoen zerbitzuaren estimatze bat zuen baina ebaluatze horiek ez dute urte bateko balioa baizik. Berriz ere, Jabegoen zerbitzuarengana jo da eta, 2017ko martxoaren 24ko gutun bidez, bi lote direla kontuan harturik, lursailaren orotariko salmenta balioa 948.000 €-koa dela baieztatu du.

Horregatik, m²-kako partekatzea eginez, Kanboko herriari egokituko litzaiokeen 4.573 m²-ko lotearen prezioa 704.682 €-koa litzateke.

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluari lursail horren erostearen inguruko eztabaida egin dezan galdegin dio, jakinez Euskal Hirigune Elkargoak 350.000 €-ko partaidetza funtsa gisa laguntza bat esleituko duela, zentzu horretan zioan Errobi Herri Elkargoak onarturiko erabaki bat baitzen. Lursail hori hiri erdigunean kokatua dela eta herriak, partaidetza funtsari esker, prezio erdian eskuratuko duela zehatu du.

Aiçaguerre andereak Jabegoen zerbitzuaren estimatzearen kopia bat eskura dezakeen galdegin du.

Auzapez jaunak baieztokarekin erantzun dio.

Aiçaguerre andereak ohartarazi du partaidetza funtsak ezin direla lursail baten erosteko esleituak izan. Lursailaren erostea ekipamendu baten gauzatzearen parte izan behar da. Ekipamendu hori zein den eta horren orotariko kostua zein den galdegin du. Noizbait merkatu estali baten aipamena izan da baina Herriko Kontseiluan ez da neholako informaziorik helarazi.

Auzapez jaunak erran du, gisa horretako proiektu bat badelarik, lehen gauza lurra atzematea dela. Lursail horretan eginen den proiektua edozein izanik ere, operazioaren kostuaren estimatzea egiteko kokagunea ezagutzea beharrezkoa da. Operazio bat ez da birtuala edo irudimenaren iturri, duen egoeraren arabera soilik kalkula daiteke eta, ondorioz, herriak ezin zuen lursaila erosi gabe aztertu. Gaur proposatzen dena lehenbizi lurra eskuratzea da eta, ondoren, Euskal Hirigune Elkargoarengana jotzea, herriak finkatu zuen proiektua Errobi Herri Elkargo ohiak egiteko hartu zuen engaiamendua bete dezan.

Aiçaguerre andereak gehitu du Hirigune Elkargoak lursail horretan zer egiteko asmoa den galdeginen duela, lurrak erosteko partaidetza funtsak baliatzea legez kontrakoa baita.

Auzapez jaunak ihardetsi dio, alde batetik partaidetza funtsak lurrak erosteko izan daitezkeela, Herri Elkargoarekin eta Suprefeturarekin egiaztatu zela hori, eta bestaldetik herria lur horren jabe izanen dela segur izatearen beha dela ondotik jinen diren azterketa guziak egin aitzin. Lursail erosterik ez bada, ez du balio eginen ez den proiektu batendako zentimo bakarra ere xahutzea.

Hitiart-Urruty andereak aurkezten den proiektuaz galdegin du: merkatua ala beste zerbait?

Auzapez jaunak erantzun dio, hain zuzen ere merkatu estali baten eraikuntza aurkeztu dela baina herriak beste gune bat ere sortu nahi duela, Kanboko animazioei hiri erdian harrera eginen lieken eremu estali bat.

Hitiart-Urruty andereak partaidetza funtsa eskuratu ahal izateko proiektu osoarendako gauzatze epemugarik baden galdegin du.

Auzapez jaunak ezezkoarekin ihardetsi dio. Xedea antolaketa zehatz batendako lur baten eskuratzea dela baina ez dela neholako data edo ebaluatzerik galdegin. Oposizioko kideek gai horren inguruan mintzatzeko Herri Elkargo ohiarekin bilkura egin dutela badakiela gehitu du.

Bardin jaunak oposizioko kideei galdegin die ea Herri Elkargoak lursail horren erostean % 50eko parte hartzea ukaiteak jenatzen dituen.

Hiriart-Urruty andereak “batere ez” erantzun dio. Egitekoa den proiektu zein den jakin nahi dutela soilik. Misterio bat dela iruditzen baitzaie, ez dute ez azalpenik ez xehetasunik.

Bardin jaunak gehitu du, herriak hiri erdian 350.000 €-ko diru laguntzarekin 704.682 €-tan lursail baten eskuratu ahal izateko parada ona duela. Kanboarrendako operazio biziki ona da eta proiektua edozein izanik ere, merkatu estali edo eraikin, aukera hori absolutuki baliatu behar dela uste du. Bere eta gehiengoaren iritzia da. Egia da, gehiengoak gauzatu nahi duen proiektu bat badela baina ez da aipatua izan den hori, agian Kanboarrendako hobeia izanen den beste proiektu bat da.

Hiriart-Urruty andereak dio: “Dena misterio! Dena misterio!”.

Bardin jaunak ihardetsi du gaurdaino herriak ez duela lurra eskuratu.

Hiriart-Urruty andereak dio lursaila bihar erostekoa dela. Bere sutez gehiengo ez da sinesgarri; proiektua zein den galdegin du berriz ere. Behar bada merkatu bat, behar bada beste zerbait...

Michelena jaunak gehitu du proiektuak ez dituela batere jenatzen, alderantziz, jenagarritzat joko luketena da, erosi ondoren, urte batzuen buruan lursail hori salgai ezarriko balitz Oussimendia lurrarekin geratu bezala. Hala balitz espekulazioa litzateke. Azken kasu horretarik irakaspenak harturik proiektu horri buruzko galderak pausatzen dituzte.

Bardin jaunak lasaitu nahi izan du. Ez da batere gisa horretako proiektu bat izanen. Merkatu bat baldin bada merkatua izanen da, beste zerbait baldin bada beste zerbait baina lur hori ez da, iduriz Michelena jaunak uste duen bezala, berriz saltzeko edo finantza operazio baten egiteko izanen. Alderantziz kanboarrek % 50eko kostua ukanen duen lursail batez gozatzeko da. Sekulan merkatua ez bada egiten, oraindik definitzekoa den beste zerbait izanen da hain segur.

Vincent Gotytino jauna gelan sartu da.

Auzapezak bere taldeak Kanboarren eta hiriaren interesak defenditzen dituela uste du. Lursail hori hiri erdian dela eta honen jabeak saldu nahi duela oroitarazi du. Jabearekin eta arta etxearekin adostasun batera arribatu ahal izan da, lursailaren parte handiena herriarena izateko eta ttipiena arta etxearen esku gelditzeko gisan. Kanboarrendako, garrantzitsua da hiri erdiko lur horren jabe herria izatea eta ez promotore pribatuak. Bere taldearen helburua hori zen eta denek partaidetza funtsari esker abantzu prezio erdian erosi ahal izateko lan egingen dutela espero du. Kanboar guziak irabazle aterako direla uste du; interes orokorreko proiektu bat izanen da. Programan aipatua izan den bezala, bere taldeak merkatu estali bat eraiki nahi du eta proiektu hori gauzatzen ahalko dela espero du. Lur hori ez da berriz salduko, ez da promotore pribatuen esku utziko, kanboar guzien zerbitzuko izanen den interes orokorrari erantzunen dio. Auzapez jaunak zinez nahi du Herriko Kontseiluak proiektu hori aho batez sustenga dezan, Kanborendako eta kanboarrendako proiektu ederra delako.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

17 – PAES (fr. SDEPA): manatze elkartean kidetzea

Barbier jaunak oroitarazi du aitzineko Herriko Kontseiluko aipagaietan zen puntu horri buruzko xehetasun gehigarriak eman ahal izateko bazterrean utzi zela.

2015eko otsailaren 16ko delibero bidez, Kanboko herriak PAES manatze elkartean kidetzea erabaki zuen, argi indarraren eroste merkatuarendako talde desmartzaz baliatzeko gisan. Barbier jaunak zehaztu du argindarra erostearendako merkatu batez soilik mintzo garela. Merkatu hori 2017ko abenduaren 31n bururatuko da, PAESarekin manatze elkarte hitzarmen berri bat izenpetzea proposatu da.

Zehaztasun gisa, Barbier jaunak adierazi du manatze elkartearen osagaia den hitzarmen berria Akitania Berria eskualde berria federatzen duelako baizik ez dela egiten. Orain arte hitzarmen hori Akitaniako bost departamenduak baizik ez zituen hunkitzen eta hemendik aitzina, Akitanian bildu diren beste eskualdeek manatze elkarte horretaz profitatu ahal izan dezaten, hitzarmen berria izenpetzea komeni da.

Iragan Herriko Kontseiluan pausatua izan ziren galderei erantzuteko asmoz, Barbier jaunak zehaztu du, Kanboko herriari dagokionez, argindarra erosteko desmartzax batez profitatzeko baizik ez dela. Baina herriak, berriz deliberatuz gero, beste hornidurez gozaten ahalko du. Gaur egun ez da hala. Gaur egun, hitzarmen osagarri horrekin bat egiten du eta argindarra erosteko

desmartxarekin bat egitea soilik galdegiten du.

Bacardatz jaunak zehaztu du ez garela argindarra erosteaz ari energiak baizik: gasa, argindarra, erregaia... Gasarendako, duela lau urte izenpetu zen hitzarmenarekin, erosteko elkarte bat bada jadanik. Orain, herria, eroste elkarte batean kidetuko da, energiarendako, lanendako... ez du nehon idatzirik ikusten aldi guzietan delibero bat izanen denik. Erote mota bakoitzarendako kidetzea deliberratu beharko baldin bada, osoki ados da. Baina aurkezten ari den deliberratzeko proiektuan, energia (gas, argindar, erregai, egur...), lehengaiak, hornidurak aipatzen dira, ez du hitzarmenean nehon ikusten delibero galderik izanen denik. Merkatu esparrua abian izanen den mementotik, herriak errespetatu beharko du.

Barbier jaunak Bacardatz jaunak diona ulertu du baina PAESari galdera bera pausatu dio eta honek erantzun dio argindarra erosteko merkatuarendako talde desmartxa soilik zela. Herriak puntu horren inguruan soilik deliberratuko du, baina Bacardatz jaunak aipatzen duen guzia egitea ahalbidetuko lukeen hitzarmen osagarri bat bada, herriak gauza bakoitzaren inguruan deliberratzekotan. Gasaren erosteko erabakia jadanik hartua da, herriak 2018an baizik ezingo du deliberratu elkarte horren parte izaten segitu nahi duen. Gauza bera beste guziarendako.

Bacardatz jaunak ihardetsi dio Herriko Kontseiluak testu baten inguruan deliberratzen duela eta horretan ez dela hori idatzia.

Goytino jaunak gehitu du bera ere PAESarekin harremanetan sartu dela eta honek baieztatu diola hitzarmenak egitea posible litzatekeen guzia aurrerikusten duela baina aldi guzietan, argindarrarendako bezala, deliberratu beharko dela energia erosteko edo, halabeharrez, obren erosteko. PAESak emaniko arropostua da.

Bacardatz jaunak delibero proiektuaren lehen puntua irakurri du: “mugarik gabeko epe batentzat manatze elkartean Kanboko herriaren kidetzea baieztatu, eraginkortasun eta energia ustiatze mailan energia, lan/hornidurak/zerbitzuak erosteko”, horrek ez du erran nahi herriak puntu bakoitzarendako bozkatuko duenik.

Goytino jaunak erantzun dio horrek ez duela erran nahi ere herria erostera derrigortua izanen denik.

Bacardatz jaunak delibero proiektuaren seigarren puntua irakurri du: “atxikiak diren enpresekin Kanboko herriaren partaide diren merkatuak, esparru-akordioak edo hurrengo merkatuak betetzera engaiatzea”. Horrek herria engaiatzen dela erran nahi duela gehitu du.

Goytino jaunak ezezkoarekin ihardetsi du. PAESari galdeginiko azalpenek baieztatu dutela.

Bacardatz jaunari deliberoan zehaztasun eskasia badela iruditzen zaio. Duela bi urte, Herriko Kontseiluak gasa erosteko elkarte baten alde bozkatu zuen. Hartan argiki idatzia zen. Delibero proiektu horretan energiaren erostea aipatzen da eta ez argindarraren erostea.

Goytino jaunak erantzun dio, Eskualdearen handitzearekin eta departamendu berrien sartzarekin, hitzarmena berriz egin behar izan dela. Hitzarmena berriz definitua izan da baina PAESak argiki adierazi du, energia erosteko edo lan desberdinendako, aldi guzietan delibero bat beharko dela.

Bacardatz jaunak dio Herriko Kontseiluak bozkatuko duena ez dela hitzarmen bat, energiaren erostea aipatzen duen delibero bat baizik. Kasu horretan zergatik ez litzateke zehaztuko argindarraren erosteko kidetzea dela eta energia mota bakoitzarendako deliberratuko dela.

Goytino jaunak hala izanen dela baieztatu dio.

Bacardatz jaunak, barkatzeko baina ez dela hori idatzia.

Saint Jean jaunak adierazi du oraingoz herriak argindarraren erostearekin soilik bat egiten duela eta hitzarmenak produktu gama zabala aurkezten duela eta herriak argindarraren inguruan deliberatzen duela.

Magis jaunak zehaztu du, merkatu publiko gisa, hurrengo merkatuen nozioak erran nahi duela hastapenean akordio orokor bat izenpetzen dela eta ondotik hurrengo merkatuak obralariak izenpetzen dituztela. Honako kasuarendako, energia hornitze eskaerak eginen direlarik, horren ondorioz jinen diren merkatuak egonen direla uste du, obralarien akordioari bide emanen diotenak eta, delibero bidez PAESarekin engaiamendua izenpetua izanen denez, herria ere hunkituko duena.

Bacardatz jaunak gehitu du herriak izenpetua izanen duelarik, ez duela gibelerat egiteko paradarik ukanen.

Magis jaunak zehaztu du manatze elkartean kidetzea izenpetzeaz ari garela.

Bacardatz jaunak erantzun dio manatze elkartean kidetzea duela bi urte izenpetu zela.

Goytino jaunak dio, Eskualdea handitu delako, herriak kidetze hori konfirmatzen duela. Baldintzak aitzineko kidetzearen berak dira. Herriak izenpetu duen gasaren kontratua bururatuko delarik, deliberatu beharko da.

Auzapez jaunak dio PAESarekin manatze elkarte batean parte hartzeko esparru-hitzarmen antzeko bat dela eta ondoren hitzarmen bereziak izanen direla.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Gehiengoak onartua.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty andereak, Philippe Bacardatz jaunak, Nathalie Aïçaguerre andereak, Pantxo Michelena jaunak.

18 – AGAH: UFCVarekin hitzarmen luzatzea

Noblia andereak oroitarazi du Herriko Kontseilua UFCVarekin hitzarmen luzatze proiektu gehigarriaren inguruan iritzia agertzera gonbidatua dela:

- Aisialdi harreraren (eskolaldi ingurukoak, asteazkenak, oporrak) hitzarmen luzatzea 2017ko irailaren 1etik abenduaren 31ra doan epearendako.
- EIA (Eskolaldi Inguruko Aktibitatea) hitzarmenaren luzatzea, 2017ko uztailaren 1etik abenduaren 31ra doan epearendako.

UFCVarekin izenpeturiko hitzarmena 2017ko agorrilean bururat iritsiko denez, Auzapez jauna eta Despons Laurence anderea UFCVko eskualde arduradun Selles jaunarekin bildu ziren urte zibilerako hitzarmen baten izenpetzea galdegiteko, zerbitzu horiek sortzen duten kostua herriko aurrekontuan sartu ahal izateko praktikoagoa dena. Horregatik bi hitzarmen horiek 2017ko urte finitzera arte luzatu behar dira, 85.757,80 €-ko kostuarendako.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

19 – Langileak

Auzapez jaunak oroitarazi du langile kopuruaren taula 2017ko apirilaren 1erako eguneratu behar dela. Jadanik plantan denarekiko aldaketarik ez da, lan ibilbideen bilakaerarekin loturiko aldaketa izanen dira berantago.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

20 – Auzapezaren erabakien jakinaraztea

Lurralde Elkargoen Kode Nagusiko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen eta Herriko Kontseiluaren 2014ko apirilaren 7ko erabakiaren arabera, Auzapez jaunak 2017ko otsailaren 4 eta 17a artean hilerriko kontzesioen emate eta berreskuratzeei dagokien erabakiak jakinarazi ditu:

- 15 urterako kontzesio erostea: 0
- 30 urterako kontzesio erostea (+ hilobia): 0
- 3 urterako kontzesio erostea (+ kolunbarioa): 0
- 15 urterako kontzesio erreberritzea: 1
- 30 urterako kontzesio erreberritzea (+ hilobia): 1
- doako lursail berreskuratzeak: 3

21 – Orotariko gaiak

○ Auzapez jaunak oroitarazi du apirilaren 3an, 20:00etan, gizarte beharren analisisia aurkezteko Herriko Kontseiluko bilkura informala izanen dela Teruel jaunarekin.

Saint Jean jaunak gehitu du egun horretan G.E.H.Z.eko zuzendari berria den Delphine Derguy anderea aurkeztuko duela.

○ Auzapez jaunak lehendakaritzarako hauteskunderen datak oroitarazi ditu, hots, 1. itzulirako 2017ko apirilaren 23a eta 2. itzulirako 2017ko maiatzaren 7a.

○ Auzapez jaunak Korrika Kanbotik iraganen dela jakinarazi dio Herriko Kontseiluari. Korrika ttiki 2017ko martxoaren 31n 13:30etik 16:30era izanen da, Kanboko Ikastolaren eta Xalbador, Saint Michel eta Errobi kolegioen parte hartzearekin. Aurten, Francesseniaren eta Ezpeletako eskola pribatu eta publikoen parte hartzea ere izanen da. Korrika herriko eremutik bi aldiz iraganen da, lehen pasaia apirilaren 2an 13:30ean izanen da eta, karia horretara, herriak kilometro bat erosi du 300 €-tan. Elizatik abiatuko den eta Arnagan finituko den 692. kilometroa da.

Herriko kontseilari guziek Korrikan parte hartzeko gomita dute, bereziki 692. kilometro horretan. Bigarren pasaia apirilaren 3an, astelehenez, goizeko 2:50ean izanen da, Marieniatik sartuko da, txokolategiko biribilgunetik pasa eta Termetatik iragan ondoren Hazparneko bidea hartuko du. Hiru banderolak pausatua izan dira, herriak 692. kilometroa 300 €-tan erosi du, herriko etxe aitzinean den totema 150 €-tan erosi duen bezala.

○ Hiriart-Urruty andereak Oussimendia proiektua zertan den galdegin du.

Bardin jaunak erantzun dio ez dela deus finkatu, proiektua aztertze bidean dela. Hauteskunderen bi itzulien artean Hirigintza batzordea biltzea aurreikusten ari dela errateko baliatu da, araudia eta zonakatzea bururatuak baitira.

○ Hiriart-Urruti andereak galdegin du herriak Txokolategiarekiko zerbait egiteko asmoa duen, eraikina, estetikarik gabekoa izateaz gain arriskutsua baita. Herriak suntsitzea agindu lezake behar bada.

Bardin jauna ados da eraikinaren egoera txarrean dela errateko baina suntsitze galdea arrazoitua izan behar dela dio. Jabeari suntsitu dezan galdegiteko txosten bat osatu behar da.

Zehatzago izan nahian, Auzapez jaunak gehitu du ez dela batere hirigintzarekin loturiko egiteko bat, hirizaintzarena baizik eta, ondorioz, Auzapezaren poliziarena. Zerbitzuen zuzendariari, Paueko Kudeaketa Zentroan arriskutsu agertzen diren eraikinendako segitu behar den prozedura zehatzaren inguruko informazioa bil dezan galdegin zion eta laster lehen gutuna igorria izanen da, herriak bi arrazoiengatik egiazko arriskua badela uste baitu. Lehen arrazoa, eraikinak eremu publikoan desmasiak sor ditzakeela edo ibiltariak zauri ditzakeela da. Bigarrena, eraikina ez denez ez hetsia ez estalia, haurrak edo nerabeak barnean ibil daitezkeela eta hori arriskutsua dela. Herriko etxean segitu beharreko prozedura iragan astean jaso zen eta Auzapez jaunaren taldeak baliabide horiek aurkezteko baliatuko duen mintegi bat antolatu du larunbaterako. Ondoko aste hastapenetik beretik, prozedura bart abian emanen da, herritarren segurtasuna bermatua izateko gisan.

○ Aizaguerre andereak adierazi du, egun Beaulieuren heineko bi aldeetan garbitze lanak abiatu direla. Garbiketa hori Halary familiak edo Departamenduko Kontseiluak eginarazten duen galdegin du.

Auzapez jaunak ihardetsi dio Departamenduko Kontseiluko zerbitzuei gaizki mozturiko landare hesi horiek segurtasunean zein eragin zuten idatziz adierazteko galdegin ziela. Zehaztu duenez, ez da aipatu familiaren eremuko arazoa soilik, haren hesia mozten ez duen lotizamenduko jendea ere hunkitzen du.

Hain zuzen ere, herriak justizia likidatzaileari eta Magdalena alderriko sindikuari neurriak har zitzaten galdeginez idatzi zien. Auzapez jaunak ez du uste Departamenduak esku hartu duenik, egoiliarrek behar zena egin dutela baizik.

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko saioa finitutzat eman du 21:35ean.